

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak Karlismoa Aztertze ko IV. Jardunaldien aktak plazaratu ditu

Liburuak Lizarran 2010eko irailean egin ziren Jardunaldietan parte hartu zuten hamaika espezialisten mintzaldiak jasotzen ditu

Viernes, 29 de julio de 2011

Nafarroako Gobernuak Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuak 2010eko irailaren 22tik 24ra Lizarran egin ziren Karlismoa Aztertze ko IV. Jardunaldien aktak argitaratu ditu. Liburuaren izenburua "*Por Dios, por la Patria y el Rey*". *Las ideas del carlismo* da.

Liburua osatzen duten 430 orrialdeetan daude jasota hamaika espezialisten mintzaldiak. Hainbat ikuspuntutatik, karlismoaren printzipioen inguruan gogoeta egiten dute. Hizlariak Espainia, Frantzia eta Portugalgoak izan ziren. Hurrenkera alfabetikoan: Jordi Canal (É cole des H autes Études en Sciences Sociales, Paris), Demetrio Castro (Nafarroako Unibertsitate Publikoa), Francisco Colom González (Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Nagusia), Alexandre Dupont (École Normale Supérieure, Paris), Ricardo García Cárcel (Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa), Jean Clément Martin (Université Paris 1- Panthéon Sorbonne), Manuel Martorell (Historian doktorea), María Cruz Mina (Euskal Herriko Unibertsitatea), José María Portillo Valdés (Euskal Herriko Unibertsitatea / Instituto Mora, Mexiko), María Cruz Romeo Mateo (Universitat de València) eta José Tengarrinha (Lisboako Unibertsitatea).

Liburuki horrek 2007tik urtero Karlismoa Aztertze ko egin dituzten Jardunaldietako akten bilduma osatu du. Aurreko urteetako akten izenburuak hauek dira: *El carlismo en su tiempo: geografías de la contrarrevolución* (2008), *Violencias fratricidas. Carlistas y liberales en el siglo XIX* (2009) eta *Imágenes. El carlismo en las artes* (2010). Horiek guztiak Nafarroako Gobernuaren Argitalpenen Funtsean eta Karlismoaren Museoan (Lizarra) eros daitezke. Plazaratu berri diren aktak 12 euroren truke eskura daitezke.

Urte hasieran jakinarazi zen bezala, Karlismoa Aztertze ko Jardunaldiak, hemendik aurrera, bi urtean behin egingo dira. Aurreikusitakoaren arabera, hurrengo Jardunaldiak 2012an egingo dira.